

# Goierri

335. zenbakia 2008ko otsailak 8



## Goierriko kofradiak

### ETORKINENTZAKO GOIERRIKO BALIABIDEEN GIDA GUIA DE RECURSOS DE LA COMARCA PARA INMIGRANTES

Goierriko bailaran bizitzea geratzeko asmoa baduzu, eska ezazu goierriko baliabide gida zure udalebean. Zure beharrei erantzuten laguntzeko arlo desberdinetako informazioa bitzen duen gida eskuragarri dugu. Si decides establecerte en la comarca del Goierri, solicita la guía de recursos en tu ayuntamiento. En la guía encontrarás la información que te ayudará a dar respuesta a tus necesidades.

- EUSKARA CASTELLANO
- FRANÇAIS ENGLISH
- ROMÂNĂ العربية

Babesiak



[www.goierri.org/goieki](http://www.goierri.org/goieki)

GOIERRI TI TIENDE LA MANO!  
GOIERRI TI TIENDE LA MANO!  
GOIERRI EXTENDS YOU A HAND!  
GOIERRI VOUS TEND LA MAIN!  
GOIERRI ZURE ESKURA!

# berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.  
Instalazio industrialak eta etxeok, eguzki-energia.  
Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.  
Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa  
Tel.: 943 653 307  
Tel. / Fax: 943 650 520  
E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa  
Tels.: 943 672 620 / 943 675 977  
Fax: 943 675 421  
E-mail: berogas@berogas.com

[www.berogas.com](http://www.berogas.com)



POLIURETANOZKO LEIHOAK



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:


I. Fdez Ornaburu Dra.  
(Medikuntza estetikoan masterra)  
A. Ramirez Baigorri Dra.

● GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU  
ultrasoinuen bidez

NOBEDA

ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG



R.P.S.:32/04



Goierriko haurren aldizkaria  
2. zenbakia zure esku



## Goierritarra

### HAMABOSTEKARIA

#### Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L.

Urbialde plaza, 7 - behea  
BEASAIN

#### Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

#### Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

Faxa: 943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

**Goierritarrak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.**

### Goierritarra

diruz laguntzen duten erakundeak:

Itsasondoko udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

## AURKIBIDEA

- 4. Iritzia:** Enekoitz Telleria.
- 5. Ingurugiro txokoa:** Goierriko belardiak (I).
- 6. Euskara txukuntzen:** Denetik (VII)
- 7. Aholkua:** Ana eta Irene Usabiaga txirrindulariak.
- 8. Kate motzean:** Jone Mendizabal.
- 9. Erreportajea:** Goierriko kofradiak.
- 14. Erreportajea:** Beasaingo Zuma GH futbol taldea.
- 18. Garai batean...:** Urbiako ermita egin zenekoa.
- 20. Gazteleku:** Sugan musika taldea.
- 23. Iragarki laburrak.**
- 24. Non zer.**
- 26. Argazki zaharra.**



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística



Enekoitz Telleria

## Mozorrotu, eta ez 'disfrazau'

**B**eñati galdetu nion, Mikel koadrilakoaren semetxoari, inauterietan zertaz **disfrazau** behar zuen. Eta perretxikuz **disfrazau** behar zela erantzun zidan Beñatek irribarre batekin, "baño oain ez dek **disfrazau** esaten mozorrotu esaten dek eta ikasizak hurrengoako, nei ai zitek-eta majo kostatzen" ohartarazi zidan Mikel koadrilakoak, Beñaten aitak, Ikastolan hala irakasten dietela eta guk bizi osoan erabili izan dugun hori gaizki dagoela jakitera emanez.

Eta aitzakia perfektua hura, Goierriarron euskara jator, jantzi, jori eta jasoari buruz hitz egiteko, lehenaz gainera. Lehenaz gainera diot, aspaldian askotan tokatu zaidalako horren defentsan irten eta amore eman behar izatea. Euskaldun berria dut bikotea, bizkaitar urbanita. Euskara ikasteko ahalegin handia egin zuen bere garaian, eta asko harritzeko moduko maila lortua du aspaldian. Harritu, dena dela, bera egiten da Goierriar askoren euskararekin. Onerako harritu askok duten etorri bapateko eta errazarengatik. Txarrerako harritu, haiei horrenbestetan debekatutako erderakadek bolo-bolo eta erremedio-rik gabe, oharkabean eta ongi ustetan egiten digutelako ihes.

Balio beza disfrazaren adibideak inauteri giroari mozorro kutsua emateko, bai-

na badira adibide gehiago euskaldun zahar eta petoek erabat barneratuta dituztenak. Horren barnereraino sartuak, non ez den zalantzan jarri ere egiten gaizki erabiltza daudela. Horregatik asaldatzen zait bikotea. Joan den egunean kotxe berrian **sedeaz bezela** joaten dela esan niolako — ez da nik normalean erabiltzen dudana esamoldea, baina aita Jabierrek hala esango lukela esan nion bikoteari—. Edo Marijo amonak Euri iloba praka bakeroak jantzita **hinxante** dagoela esan duelako. Edo Euriri bularreko esnea kontrako eztarrira joaten zaionean oso **rato** txarra pasatzen duela esaten duelako.

Ez dagoela zertan horren garbizalea izan beharrik esaten diot nik horrelakoetan. Onartutako erderakadak direla nolabait. Gurean oso sartuta daudenak. Inori belarrira minik egiten ez diotenak. "Euskara ikastea tokatu zaigunoi kenduta izango da hori, noski", izan zen bere erantzuna.

Eta eman dizkiot buelta batzuk gaiari geroztik. Eta ikusi dut nire burua zer pentsatua eman didan egoera batean ere. Lehorgailua eskatu zidan bikoteak txikiari ilea lehertzeko, eta hara non egin zidan ihes ez dela lehorgailua esaten **sekado-rea** dela gurean. Eta halaxe esan nuen, gainera, pentsatu ere egin gabe, sinetsita. Asma dezakezue nork irabazi zuen eztabaida.

Nik, dena dela, esan nion ez **preokupatzeko**. Ez duela merezi horregatik **rato** txarririk pasatzeak. **Karnabaletan** gaudela, **disfrazatuko** dugula txikia **hinxante**, eta jungo geala **porai**. Ez garelako **aburrituko**, hartuko dugula **kaslimon** bat edo **zumodemelokoton** bat nonbait, eta **sedeaz** bezala joango dela dena.

Jatorra, jantzia, joria eta jaso?

*Ez dagoela zertan horren garbizalea izan*

*beharrik esaten diot nik horrelakoetan.*

*Onartutako erderakadak direla nolabait.*

*Gurean oso sartuta daudenak.*

### LOINAZARGI

Jose Lasa, 8-10 - LAZKAO  
Tel.: 943 164 846 - 627 505 687

- Elektrizitate gaiak
- Argiteria
- Etxeetarako hornikuntzak
- Informatika-gaien salmenta eta konponketa
- Informatika hornikuntzak, sareak
- Telekomunikabideak

## AMEBI

## Sagardoa

## txotxetik

Zubierreka,9 ☎ 943 16 25 23 LAZKAO

# Goierriko belardiak (I)

Imajinak inoiz baino indar handiagoa duen garai haue- tan, arduratzekoa da lurraldeari eman diogun aldaketa ikusteak. Orain artean, paisaia osatzen duten lur horiek, nekazaritzari esker mantendu dira, eta bertan, belardiak izan dira giltzarriko elementu. Elementu identifikagarria, alegia. Hauek, nekazaritzak pairatzen duen krisia barne, desagertze eta bazterte egoe- ra batera doazela ikustean, argazki paregabe horren barrenean dagoen herri iza- era arriskuan jartzen dugula jabetzen gara. Hauen atzetik nortasun eta bizi ohitura batzuk gordetzen direla jakinik eta belardien mantenua abeltzaintzan oinarriturik dagoela dakigunean, ezinbesteko zaigu hauei, baserriar eta abeltzainei, aparteko gizarte onarpen eta babesa eskaintzea.

Geroz eta abeltzain gehiagoren ikuspegitik, ordea, egun belardiek ematen dutena nahikoa ez dela dirudi, abereak duten elikadura kostuan ez duela garrantzirik. Bazka, bigarren mailakoa bailitza. Ondorioz, gauza jakina da ganaduaren produkzioa, kanpotik datozen elikagaietan oinarritzeraz jo dela: pentsua, kontzentratua, arta berdea, alpaka...

Betitik izan bada ere, belarra ekoiztea jarduera nekagarria da, askotan terreno desegokian, makinari azpiegitura, eta lan askore-



kin lotzen dena. Gizarte ohiturekin erkatzen badugu, udaberri eta udaran, "kaletarrek" aisiari erreparatzen dietenean, abeltzainek, lanera joan beharra izaten dute, giro ona denean ordu mordo sartuz, beren arduragusia belarretara soilik jarrita, eguraldiari begira beti. Eta, noski, ez da bate- re harriztekoa abeltzaina barne borroka batean aurkitzea, baserriko baliabideak, luraren zaintza, etxeko ekonomia, eta beste maila bateko beharren artean: aisia, oporrak, famili eta gizarte bizitza...egin nahi eta behar izatea ere.

Lehen bazen ustea, abererik ez zegoen baserria ez zela BASERRI. Hau horrela ez bada ere, bere zentzua zuen. Izan ere, baserria, famili muin eta bizi izateaz aparte, lantoki ere bazen, eta ondorioz, nahikotasun bat ziurtatzera begira,

gizakia eta luraren arteko zikloa ixteko, ezinbesteko zen aberea. Lurretik, ekoiztearen ondorioz ateratzen zituzten eta ditugun elikagaiak, eta horiekin hainbat elementu mineralak, berriro lurrera bueltatzea eskatzen du, lurra "elikatzea", eta hori, modurik osagarrienean abereen simaurraren birtutez ematen da nagusiki. Hortik, ziklo iraunkor bati atxikitako sistema dela ulertuaz, gizakiok, lurarekiko dugun harremanetan zubi lana egiten diguten abereak ezinbestekotzat hartzea. Osotasun baten barruan, baserriari zentzua ematen dio, eta halaber jasotzen dugun paisaiari.

Ganaduaren elikaduran, baserriko ekonomian, belarrik duen benetako balioa aldarrikatuz, abeltzainari eskerrak eta animuak eman- nez, etorkizuneko nekazari- tza eta gizarte eskaerarekin bat etorriaz, gure belardien, larre eta bazka guneen aldeko apustua egitea, eskatzen da...zuei eta Adminis- trazioari babesa eskatuz.

*Manex Aranburu*

***Lehen bazen ustea, abererik ez zegoen baserria ez zela BASERRI.***

## JAKIN BEHARREKOAK

**Hezeguneen Nazioarte-ko Eguna otsailaren 2a izan zen.** Hezeguneak biosferaren ekosistemarik aberats eta berezietakoa- ak dira. Beraiek babesteko eta kontserbatzeko Ramsar hitzarmena dago. Euskal Herriko zortzi hezegune daude hitzarmen honetan sortu zen Nazioarte-ko Gar- rantzizko Hezeguneen Zerrendan

**Aizkorri-Aratz Parke Na- turaleko parketxea Arantzazun egingo dute,** Gandiaga Topagunea erainkuntzaren alde bate- an. Parketxean erakusketa iraunkorra, aterpetxea eta gela didaktikoak egongo dira. Bertan ingurugiro hezkuntza eta turismoa ere uztartu nahi dira, honeta- rako Arrikutz kobazuloa, Itugorri basoa, Gomistegi artzain eskola eta parkean zehar dauden ibilbidei bu- ruzko informazioa eskaini- ko da.

**Landare hesiak edo hes- kaiak duten garrantzia landa eremuan ikasta- roa** emango da Itsasmen- dikoi Fraisoron otsailaren 25ean hasi eta martxoaren 6ra arte, ikastaroa teori- praktikoa izango da. Infor- mazio gehiago nahi izanez gero bertara deituz: 943- 692162.

**Frantziako gobernuak MON810 Monsanto- ren arto transgenikoaren la- borantza bertan behera uztea erabaki du,** arto ho- nek ingurunean, osasune- an eta ekonomian izan di- tzakeen ondorioez zalant- zak daudelako.

## Denetik (VII)

Maizpide  
euskaltegia

Oraingoan ere ere “beste entsalada bat”!

## Ez al dugu gehiegi “mozten”?

Kontuz, gaztelaniaren eraginez, moztu aditza behar baino gehiagotan erabiltzen dugu eta!

- ✓ *Zuzendariarekin telefonoz ari nintzenean deia eten egin zen. (Zuzen)*
- ✓ *\*Zuzendariarekin telefonoz ari nintzenean deia moztu egin zen. (Oker)*
- ✓ *Hirigoien kaleko lanak bukatzeko kendu omen dute argi-indarra udaletxeko langileek. (Zuzen)*
- ✓ *\*Hirigoien kaleko lanak bukatzeko moztu omen dute argi-indarra udaletxeko langileek. (Oker)*
- ✓ *Zumaian Santio hondartzaren parean gertatu den luzziaren ondorioz, N-634 errepidea itxita dago Zumaia-tik Getariara. (Zuzen)*
- ✓ *\*Zumaian Santio hondartzaren parean gertatu den luzziaren ondorioz, N-634 errepidea moztuta dago Zumaia-tik Getariara. (Oker)*

Bestalde, gaztelaniazko “cortado” hitza euskaraz adierazteko moztu edo ebaki baino modu txukunagoak bilatu beharko genituzke. Zer iruditzen zaizue, aizue, Dionisio Amundarain goierritar ezagunak aspalditxo sortutako “esne-kafe” hitza erabiltzea? Euskaltzaindiari proposatzeko modukoa bada, behintzat!

Eta zer dela-eta “esne-kafe”? Bada, hauxe duzue azalpena: esne-behia (vaca lechera) edo behi-esnea (leche de vaca) bereizten ditugun bezalaxe, jakin badakigu kafesne hitza erabiltzean bigarren osagaia (esnea) dela nagusi: esne asko eta kafe gutxi, alegia. Un café (cortado con leche) zer da, bada, azken batean? **kafea** eta **“esne-tantak”!**

Ondo irizten badiozue, beraz, aurrerantzean horrela erabiltzen ahalegindu:

- ✓ *Hi, Pako, atera iezazkidak bi esne-kafe eta kafesnea! (Zuzen)*
- ✓ *Hi, Pako, atera iezazkidak bi moztu(ebaki) eta kafesnea! (Oker)*

## Zerbitzu minimoak?

Euskal Autonomia Erkidegoan greba eguna izaten denean ez dira gutxi “zerbitzu minimo” hitzak hitzetik hortzera esaten dituztenak. Ondo esana al dago? Bada, ez! “Minimo” hitza egokia da matematiketan, baina gainerakoetan beste modu batera adierazi beharko dugu.

Erreparatu ondorengo adibideari:

- ✓ *Sindikatuak greba egiten badute, gutxieneko zerbitzuak izango dira. (Zuzen)*
- ✓ *Sindikatuak greba egiten badute, premiazko lanak edo behar-beharrezko lanak bakarrik egingo dituzte langileek. (Zuzen)*
- ✓ *\*Sindikatuak greba egiten badute, zerbitzu minimoak izango dira. (Oker)*

## Milana... Ala mila bana?

Oso maiz gertatzen ez bada ere, **zenbana** galderari erantzutean “milana”, “bi milana”... bezalakoak entzuten dira oraindik Goierriko kaleetan. Zuzenak ez direnez, ikus dezagun nola behar duen:

- ✓ *Mila bana euro eman dizkiegu Joxeri eta Manueli. (Zuzen)*
  - ✓ *Mila bana euro eman dizkiegu Lutziri eta Lurdesi. (Zuzen)*
- Bestalde, eta Cervantes-en hizkuntzari “esker”, **mila** zenbakia erabiltzen dugu kopuru handiak adierazteko, euskaraz askoz jatorragoak direnak erabili beharrean:
- ✓ *Makina bat aldiz esan diot Erramuni bankak mabai gainean ez jartzeko, baina alferrik! (Zuzen)*
  - ✓ *Hamaika aldiz esan diot Erramuni bankak mabai gainean ez jartzeko, baina alferrik! (Zuzen)*
  - ✓ *\*Mila aldiz esan diot Erramuni bankak mabai gainean ez jartzeko, baina alferrik! (Oker)*

Hi, Koxme, hamaika aldiz esan diat gutxieneko zerbitzuak larrialdietarako bakarrik direla, baina...

Motel, esne-kaferik ere hartu ezinik nebilek .  
Pentsa ezak,  
sagardotegiko txuleta goxoa jateko irrikan negok!  
Hau mina, dedio!




## Zuzendu, behar izanez gero...

1. Azpeitiko taberna horretan prestatzen duten moztua goxo-goxoa da.
2. Mila bider esan dizut, Ainhoa, prentsa arrosa ez dudala batere gustuko!
3. Etxegaraten bi noranzkoetan moztu dute errepidea.
4. Lehiaketa ospetsu batean bosna mila euroko saria eskuratu zuten Igorrek eta Idoiak.
5. Gutxieneko zerbitzuak egiten ari ziren bi erizainekin hitz egin dugu.

**OHARRA:** Ihenengoan esne-kafe proposatzen dugu; bigarrenean, hamaika aldiz egokitzea da; hirugarrenegoa, itxi; laugarrena eta bosgarrena zuzenak dira.

Internet-a erabiltzearen ondorioz, geroz eta jende gehiagok ditu arazoak. Birus, Spyware, Spam,... mehatxu hauei aurre egitea erraza gerta daiteke, aholku hauek jarraituz.



**1.- Antibirus** bat instalatzea. Komenigarri da, norbera kezkatzea birus aurkako programa honek, ea eguneratuak dituen bilaketa motorea eta birus-en datubasea. (Avast)

**2.- Firewall** suebaki bat instalatzea. Gure ordenagailura Internetez sarrera maltzurak saihestuko ditu. (Zonealarm)

**3.- Spyware** aurkako programak. Hauetariko onenak, dohainik lortu daitezke, eta arazoak sortzen dira, spyware aurkako programak erosteko eskaintzak, spywareak direnean. (Spybot Search & Destroy / Ad-aware). Gutxienez astero eguneratzea eta sistemaren garbiketarako programaren bat erabiltzea komeni da (Elistara).

**4.- Sistema eragilea** segurtasun txatalez eguneratua mantentzea. Windows

erabiltzaileek, eguneratze automatikoa aktibatu edo Windows Update erabili.

**5.- Gure birus aurkako programa,** sartzen eta irtezen den posta azertze-ko prestatua dagoen begiratu.

- Ezezagunen posta, ez dugu onartuko, zuzenean borratu. Banke-txetako edo pertsonalak diren pasahitzak eskatuz jasotzen ditugun mezuei ez diegu kasurik egingo. Taktika hau "phishing" bezala ezagutzen da.

- Arreta posta elektronikoz jasotako mezuek dituzten fitxategiekin, pertsona ezagunak bidaliagatik, kutsatuak egon daitezke.

**6.- Ez ezazu "dohainiko gauzatxorik" deskargatu,** screen saver, wall paper, irudiak... opari hauek,


ustekabeak ere izaten dituzte ezkutuan, programa espioiak adibidez.

**7.- Pasahitzak erabiliz gero,** aldiro aldatzea izango da seguruena. Hauek gutxienez 7 karaktere izango dituzte, sinbolo, zenbaki eta letraz osatuak. Askotan eroso gerta daiteken pasahitza nabegatzailean gordetzea ezeztuko dugu, posta erabiltzean adibidez, birus asko automatikoki bidaltzen dira gure kontueta-tik.

**8.- Haririk gabeko sareetan,** segurtasun aukera guztiak aktibatu eta WEP pasahitzak ahal diren luzenak erabili. (Ez dira gure sarean sartuko eta ez dute gure internet-eko konexioa erabiliko).

**9.- Arreta handia peer to peer** sareen bitartez deskargatutako fitxategiekin eta ez ahaztu birus aurkako programarekin, garbi dauden ikustea. (Emule).

**10.- Datu garrantzitsuen segurtasun kopia ere egin behar da aldiro.** Zenbait kasuetan geratzen den babes bakarra da.



**Jose Luis Estala**  
Informatika teknikaria  
Infonet - Ordizia

  
**SILVIA MIRASCASAYAS**  
ODONTOLOGOA  
KOL. Zka. 649 RPS. 223/07



TEL./FAX: 943 88 92 87  
SAN INAZIO KALEA, 2  
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

  
**xetai**  
nafarroa etorbidea 1  
20200 beasain gipuzkoa  
www.xetai.net

**INFONET**  
INFORMATIKA  
ZERBITZUAK

**SALMENTA  
ETA  
KONPONKETA**

Goierri kalea, 1 (P21) ORDIZIA  
Tel.: 943 883 201 / 652 771 437  
infonet\_ordizia@terra.es



## “Txikitan asko jolasten nuen ileapaintzaleetan, betidanik”

### Noiztik zara ileapaintzaile?

14 urterekin hasi nintzen, beraz bizi erdia daramat honetan.

### Zein jende mota etortzen da gehiena ileapaindegira?

Ataun herri txikia denez, pixka bat denetik etortzen da, adin guztietakoa.

### Jendeak modari asko begiratzen al dio?

Bai. Eta gizonezkoek geroz eta gehiago.

### Emakumezkoetan, zein da aurtengo joera nagusia?

Melena zuzenak eta kopeta-ile edo flekillo luzeak.

### Esaten den bezala, txutxumutxu lekua izaten al da ileapaindegia?

Hau ez behintzat. Handia denez, bezero batetik bestera tar-te handia dagoelako.

### Txikitan ileapaintzaileetan jolasten al zenuen?

Bai, asko, betidanik.

### Ileapaintzailea izango ez bazina, zer izango zinateke? Disenatzailea.

### Nor orraztuko zenuke gustura?

Penelope eta Monica Cruz, oso ile polita dute.

### Amets bat:

Dagoeneko beteta daukat: nire ileapaindegia jartzea.

### Janari bat:

Urdaiazpikodun kroketak.

### Edari bat:

Ez dut alkoholik edaten, beraz, ura.

### Zaletasun bat:

Arropa erostea eta kotxea gidatzea.

**OVER** Urraki  
Bidaietan adituak

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**  
Tel.: 943 80 40 15 Faxa: 943 80 55 79  
urraki@over.es www.over.es

## ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak,  
alineazioa,  
aluminiozko llantak

Filtroak, olioak,  
engrasea

Frenu pastilak, tubo  
eskapeak, bateriak

Harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57



# kutxa






# Goierriko kofradiak

**B**easaingo odolkia, Zaldibiako mondejua eta Idiazabal Gazta bultzatzea helburu duten hiru kofradia daude Goierriin: Beasaingo Odolki Kofradia, Zaldibiako Ardiki, Mondejuaren Kofradia eta Ordiziako Idiazabal Gazta

kofradia. Iazko irailan dena den, produktu gastronomikoak albo batera utziz, dantza oinarri duen kofradia bat sortu zen Beasainen: Igartzako Dantzarien kofradia, ia 500 urte dituen Ordiziako Santanazaleen kofradiaren ildotik.



©-Faxa: 943 88 95 76 Urdaneta, 41 ORDIZIA



### ERREFORMAK

- ✦ Tximini eta ekonomikak
- ✦ Berogailuak
- ✦ Iturgintza
- ✦ Zeramika erakusketa
- ✦ Bainuko altzariak



**aulia**  
TOLARE  
SAGARDOTEGIA

☎ 943 80 60 66  
Aulia-enea  
LEGORRETA

Elhuyar hiztegiko enziklopediaren arabera, kofradiak, maila sozial beretsuko lagunen artean sortutako elkarteak da, helburu amankomun batzuetan oinarrituta. Zehaztapen gehiago ere ematen ditu. "Jatorriz elkarre erlijiosoak baziren ere, geroago herri eta lurraldeen defentsarako antolatutako zaldunen elkarteak bihurtu ziren. Erdi Aroan garrantzi handiko erakundeak izan ziren eta nagusiki jarduera eta helburuen arabera eratutako lanbide bereko artisau-multzoak ziztuzten. Euskal Herrian hiru kofradi mota desberdin sortu ziren: nekazal kofradiak, ohitura eta usadiozko arauetan oinarriturik, uzta txar edo azienda-izurrite batek sortutako egoera larriari aurre egiteko asmoz sortuak; arrantza-kofradiak, San Pedrori eskainiak gehienak, eta bere egitekoen artean kaleratzei aurka egitea eta behartsuen asistentzia zutenak; eta kofradia politikoak, oro har, esparru jakin baten antolaketara eta gobernuaren eratzear arduratzen zirenak".

Goierriko hainbat herritan, era horretako kofradiak oraindik badira ere, azken urteetan, beste kofradia mota batzuk hartu dute garrantzia: kofradia gastronomikoen eta dantza kofradien. Goierrin bost aurkitu ditugu. Zaldibiatik hasiko gara.

## Ardiki, Mondejuaren Kofradia



2004. urteko urriaren 27an aurkeztu zen Donostian, Zaldibiako Ardiki Kofradia. Hainbeste urtean Ardiki eguna antolatzen zuen taldetik sortu zen Kofradia. 5 lagunek sortu zuten kofradia. "Zaldibiak bere hegemonia ez galtzarekin batera, hiru helburu nagusirekin sortu zen: mondejua galtzen ez uztea, indarra ematea, jendeak ez ahaztea; mondejuaren merkaturatzea indartzea eta mondejuaren jatorriaren inguruko azterketa egitea", dio Migel Mari Irastorza Kofradiakideak. Azken helburuaren harira, "mondejuaz oso gutxi dago idatzia. XVIII. mende bukaeran badira aipamen batzuk baina oso-oso gutxi", gaineratu du zaldibiarrak.

Inguruko kofradia ezberdinekin ez dute harreman handirik, ez baitaude Fecogan (Kofradia Gastronomikoen Federazioan) sartuta. Ez dute beste kofradien kapituluetara joateko ohiturarik eta beraiek ere ez dute egun berezirik ospatzen. Hori bai, urteroko Ardiki egunaren antolazaileak dira.

Kofradiakideen jantzia diseinatuta omen daukate, baina oraindik gauzatu gabe. Momentuz behintzat, ez da beraien helburuen artean sartzen.

**"Eguneroko ogia, ogi bereziak eta pastel ezin hobekak"**



K. Nagusia 35 BEASAIN

☎ 943 88 77 58

Elosegi, 14 LAZKAO

☎ 943 88 72 79

Sta. Maria, 19 ORDIZIA

☎ 943 16 00 44



**mazda**

☎ 943 889 296

Faxa: 943 887 952

N-1 errep. 419 Kma

BEASAIN

**Bikar, S. A.**



## Beasaingo Odolkiaren Kofradia



1985eko abenduaren 1ean sortu zen Beasaingo Odolki Kofradia, 102 kofradiakideekin. Gaur egun gutxixeago ditu, 86. Kofradiakide gehienak Beasaingoak badira ere, Madrilgoak, Bartzelonakoak, Gipuzkoako beste herrietakoak, Bizkaikoak.. ere badaude. Dena den, 1986ko otsailaren 5ean Loizazko San Martinen martirioaren egunean eratu zen ofizialki Kofradia eta orduantxe ospatu zen bere Lehen Kapituluua, urteroko Kapituluaren eta Dastatze Lehiaketaren datak zehaztu ondoren.

Jantziei dagokienean, ohiko kaparekin batera, prozesioan erabiltzen duten kapela.

Bere helburuetariko bat, odolkiak irautea da eta baita berari dagokion garrantzia ematea ere, baserriko sukaldeetan ez ezik sukalde onenetan, jatetxeetan eta elkarteetan egotea ere. Martin Urkiola Odolkiaren kofradiakideak esan digunez, "Kofradia sortu zenean, Beasain, trenagatik zen

ezaguna. Baina Beasainen baguenen beste produktu bat, odolkia, eta jatetxeetako kartetan. Beraz, Beasaingo odolkia zaindu eta erakutsi, horixe izan da gure helburua". Beasaingo Odolkiari eskaintako Kofradia sortzerakoan, kontuan izan ziren, besteak beste, Jose Castilok bere jatetxeko menuan Beasaingo odolkia eskaintzen zuela eta kalitatezko produktua zela.

Urtean bi ekitaldi egiten dituzte: otsailaren 5ean urteko kapituluua, eta azaroan, odolki txapelketa. Gipuzkoako Iparraldeko eta Nafarroako beste kofradia batzuen Kapitulueta ere joaten ziren kofradiakideak. Lehiaketa ezberdinetara ere bai: Mungiara, Tolosara, Gujuelora...

Beasaingo odolkiaren alde egindako lanarekin gustura dago Martin Urkiola, Sevillako Expon, Madrilan eta Bartzelonan ere ezaguna baita Beasaingo odolkia.

**Sanperio  
kalea  
ORDIZIA**

Ogi berria  
egun guztian  
zehar

**okindegia - kafetegia**

Bertako produktu naturalak:  
urdai azpikoa, saltxitxoia...  
jogurtak, esnea...

Baserriko  
produktuekin  
egindako  
gosariak

**ZEGAMA  
OKINDEGIA**

*Eskuz egindako ogi naturala*

Intxausti eremua, 14G-14H nabeak  
☎ 943 80 10 66 ZEGAMA

**SALMENTA PUNTUAK:**

**Beasain:** Oskarbi, Osiña, Natxo dietetika, Ekilore. **Ordizia:** Sabino, Muño, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viaña eta Ainhoa dietetika. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Joxan harategia. **Ormaiztegi:** Iñaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda dendak, Centro 100. **Urretxu:** Dia. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo.

## Idiazabal Gaztaren Kofradia



1990. urtean sortu zen Ordizian, Idiazabal Gaztaren Kofradia. Bertako kide izateko, hiru baldintza bete behar dira: Idiazabal gazta maitatu eta haren alde lan egitea da, urteko kuota bat ordaintzea eta kapitulura joatea. Idiazabal Gaztarekin batera, Ordiziako azoka bultzatzeko helburua ere badu Idiazabal Gaztaren kofradiak. Ordiziako Udalaren eta Antton Olanoren ekimenez sortu zen Idiazabal Gaztaren kofradia. Ordiziako Alkatea izaten da beti kofradiako lehendakaria.

16 lagunek hasi zuten ibilbidea eta gaur egun 60 kide dira. Euskal Herri osoko kideak daude gainera, urtean 42 euro ordaintzarekin batera, "Idiazabal Gazta maite duen edonork baitauka lekua bertan", dio Jose Luis Lasa kofradiakideak.

Kofradiaren helburuak, eskuz egindako Idiazabal gazta defendatu eta ezagutaraztea da; gazta jateko ohitura bultzatzea ere helburuen artean sartzen da. Horretarako ekintza ezberdinak antolatu dituzte urtean zehar, beti ere, Ordiziako azokarekin lotuta: Aste Santuko asteazkenean, Idiazabal Gazta berriaren ekitaldia egiten dute; uztailko lehenengo igandean, urteroko kapitulua egiten

dute; irailan, azoka bereziko Gazta lehiaketa antolatzen eta bideratzen du, epaimahaia osatuz eta enkantea aurrera eramanez; azaroan, azkenik, Ardoaren astearen barruan, azkeneko 10 urteetan Gazta lehiaketa irabazi dutenen sariketa egiten dute.

Jose Luis Lasak aipatu digunez, Idiazabal Gaztaren kofradiak Idiazabal Gazta bultzatzen lan handia egin du. "Duela 18 urteko gazta txapelketak adibidez, ez dauka zerikusirik; enkantea ere, Antton Olanoren ideiaz, kofradiak eraman zuen aurrera. Duela 18 urte, urtean ekitaldi bakarra egiten zen eta gaur egun, Idiazabal Gazta protagonista den lau egun badira Ordizian".

Inguruko beste kofradiekin ere harremanak dituzte eta beraien kapituluetara joaten dira. Berezi ki, lau kofradiekin harreman estuagoa dute, anai-kidetuta baitaude: Kataluniako Kaba kofradia, Errioxako Ardoaren kofradia, Burgosko Gaztare kofradia eta Mantxego Gaztaren kofradia.

Kofradiek jantzi bereziak izaten dituzte eta ordiziarren kasuan, artzainaren jantzia dute: blusa beltza, txapela, zapia eta kofradiaren domina.

**SOLOZABAL**  
AUTO-ESKOLA

Mota guztietako  
gida-baimenak

Aita Urdaneta

ORDIZIA

☎ 943 88 72 76



**ondoeta**

**GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO  
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN  
ESPEZIALDUA, ESKUZOAK ETA AUTOMATIKOAK**

E-mail: [ondoeta@ondoeta.com](mailto:ondoeta@ondoeta.com)

[www.ondoeta.com](http://www.ondoeta.com)

☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxes: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA



## Santanazaleen Kofradia

500 urte betetzear dago Ordiziako Santanazaleen Kofradia. 1509. urtean onartu zituen Santa Ana Kofradiak bere ordenantzak eta gaur egun, bere horretan jarraitzen dute ia batere aldatu gabe. Ezkonberrien esku dantza da uztailearen 27an egiten den ikuskizunaren une gorena, eta, hala eta guztiz ere, udal artxiboan kofradiak dituen hiru liburukietan ez zaio aipamenik ere egiten dantza horri. Dirudienez, kofradia Santa Ana herriko zaindariari gurtzeak egiteko sortu zen, eta horregatik ez zaio aipamenik egiten esku dantzari.

Urte honetan ezkonduko bikoteak Udaletxean elkartzen dira, emakumeak Manilako Mantoia daramatelarik, eta Alkatea aurrean jarrita taldea Parrokiara hurbiltzen da. Elizkizunaren ondoren, Udaletxera itzultzen dira eta hamaiketako baten ondoren Akten liburu zaharrea sinatzen dute Alkateak, Maiordomoak, (liburuak Santaneroak du izenburua eta 1792koa da). Momentua iristen denean alkatea plazara jaitsi eta Santanazaleak diren senar gazteei eskua eman ondoren ohiturazko Santanazaleen Aurreskuari pausu ematen zaio.

Esku dantzarako emakumezkoek jantzen duten zetazko xalax ere badu bere istorioa. Xal horiek udaletxean bertan jasotzen dituzte. Zenbaiten esanetan, Andres Urdanetak ekarri zituen xal horiek



Filipinetatik, sorterriari opari bat egiteko asmoz. Beste batzuen ustez, berriz, ohiko artilezko xalax ordezkatzeko ekarri zituzten zetazkoak urteren batean.

## Igartzako Dantzarien Kofradia



Kofradiarik berriena da Igartzako Dantzarien Kofradia. 2007ko irailaren 9an sortu zen, Beasaingo dantzari eta dantzari ohien bilgune eta eskaerari

erantzunez. “Dantza atsegin-iturri dugulako. Dantzari izateaz harro gaudelako. Ohiturak eta tradizioa bizirik dauden zerbait direla pentsatzen dugulako. Bizirik egoteko, elikatu eta aberastu behar ditugulako. Harria herririk gabe ezer ez delako. Herrikideei kultur ekarpen berri bat egin nahi diegulako. Poza adierazteko modu bat dugulako. Asko garelako. Beti izan garelako. Izaten jarraitu nahi dugulako. Eta dantzatuz gozatu nahi dugulako”, diote Igartzako dantzariak.

60 dantzarik eta 15 musikaririk osatzen dute Kofradia. Orain dela 200 urteko Beasaingo udaleko akta zaharretan deskribatzen zirenetan oinarritutako jantziak dituzte. Eskuarteetan, ezpata luzeak, Zaldibian eta Ordizian Pujanatarren garaian erabiltzen ziren ezpatak eredu hartuta.

Sorrerako ekitaldia berezia izan zen, gainera. “Herriko plazatik Igartzara, Igartzako ingurumarian, zubia eta jauregia, errota nola burdinola, ermita zein Dolarea, denak lotuko ditugu ezpata-dantzen sokarekin, eta bilduko ditugu txistu, dandor eta musikatan, apaingura berria jantziko diogu, eta bizi berria hartuko dute aspaldiko harriek, bidexkek, zuraje eta egiturek”. Era honetan, Igartzako multzoari balio erantsia eman nahi zaio.



# Futbolarekin jolasean

*Beasaingo Zuma GH, Espainiako Futbol-7 txapelketako txapeldunak*

**F**utbolarekin inoiz baino gehiago gozatzuz dabilta Beasaingo Zuma GH taldeko 16 futbolariak. Garaipenek ere inoiz baino ilusio handiagoa egiten

diete. Orain arte lortutakoa ez da gutxi gainera: iazko denboraldian, Espainiako txapeldun izan ziren, baita Iberiar Penintsulakoa ere.

**PSIKOLOGI KLINIKOA**

**ARGI** Jose Ramon Dato Prieto  
Psikologian lizentziatua  
Elkargokide zenbakia: E-2644  
RPS: 420/01

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041  
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

**ARANDIA**  
Garajea

LADA Ssang Yong AUTOEN KONPONKETA

N-1, z/g Iurre Auzoa  
OLABERRIA  
☎ 943 88 09 47

**IÑAKI ARIN**  
aseguruak

943 888 702 Oriako pasealekua, 20 BEASAIN

GENERALI

Zuma GH taldea 2002. urtean sortu zen, Beasaingo areto futboleko lagunarteko futbol txapelketan hainbeste urtean parte hartu izan zuten Zumazuritze taldearen jarraipen gisa. 16 laguneko taldea osatu eta Futbol-7an jokatzen hasi zen Zuma GH duela 6 urte. Guerra Hermanos enpresaren laguntza du taldeak.

Gipuzkoako txapelketa 3. mailako A taldean hasi zuten ibilbidea. Urte hartan bertan, 3. mailako txapelketa irabazi zuten. Hurrengo bi urteetan, 2. mailan aritu ziren eta 2004. urtean 2. mailako txapelketa irabazita, 1. mailarako txartela lortu zuten beasaindarrak. Dena den, "aldaketa handiko txapelketa izaten da txapeldunek mailaz igotzeko eskubidea dute eta azkenekoek aldiz maila galzten dute".

Gorengo mailan, maila ona erakutsi du Zuma GH-k. 2007. urtean, Gipuzkoako txapeldunak gelditu ziren. Era horretan, Espainiako txapelketa jokatzeke txartela lortu zuten. Santandarren jokatu zuten eta han ere, irabazi egin zuten. Ezustean, beste txartel bat ere irabazi zuten Santandarren: Portugalen jokatuko zen Final Four Ibericarako txartela; hau da, Espainiako txapelketako bi finalistak eta Portugaleko bi finalisten arteko txapelketa. Bolada onari eutsiz, Portugalen ere irabazi egin zuten.

### Santanderren

Ekainaren 12an Santandarren jokatu zuten Espainiako txapelketa. "Estatu mailan F-7 modalitate honetan jokatzen duten 600 taldeetatik 16 onenek jokatzen zuten. Ligaxka bat jokatu zuten goizean "hura irabazi egin genuen". Goizeko kanporaketa pasatuta, arratsaldean final-laurdenak lehenengo, finalerdia gero eta azkenean finaleraino iritsi ziren beasaindarrak. "Hanka



*Santandarren Espainiako txapelketa irabazi ondoren ateratako argazkia.*

## Zuma GH

16 jokalarik osatzen dute Zuma GH taldea. Belaunaldi ezberditenako jokalaria biltzen dira bertan. Zaharrenak, Jose Luis Zalduak, 44 urte ditu, eta gazteenak, Iker Fernandezek, 25. Jarraian duzue taldekideen zerrenda: Jon Galparsoro Aldasoro, Xabier Txasko Aramendi, Jose Luis Zaldua Aierbe, Roberto Turrientes Matxain, Juan Miguel Aiestaran Irastorza, Xabier Cortes Aiestaran, Imanol Galarreta Lasa, Luis Garmendia Aldanondo, Iker Ramirez Llorente, Alejandro Calvo Garcia, Xabier Lopetegi Ugarte, Iakes Gibelalde Arrizabalaga, Jose Antonio Perez Cambero, Iker Fernandez Garcia, Xanet Garmendia Aldanondo eta Unai Zubeldia Altuna.

bakarrean joan ginen. Goizean hiru partidu eta arratsaldean beste hiru, gehiegizkoa izan zen. Normalean, 25 minutuko bi denbora izaten ditu partiduak baina Santandarren orduerdiko partiduak jokatu genituen. Ia segidan jokatu genituen partiduak".

Sekretu txiki bat kontatu digute, beharbada, irabaztearen arrazoia: "bazkaldu ondoren, errekan sartu ginen denak. Tontakeria bat ematen du baina hankentzako

oso ondo etorri zitzaigun", diote umoretsu.

Ezusteko garaipena izan zen beasaindarentzat. "Lehen asmoa itxura ona emateaz gain txapelketa ezagutu eta ondo pasatzekoa zen bai bagenekien talde haue-tako askotan "eliteko" futbola (Futbol profesionalen 1.go mailakoak) utzi berri zuten jokalaria asko zeudela", diote Zuma GHkoek. "Finalderdian adibidez, Bizkaiko Forum Sporti 3 eta 0 irabazi genion. Talde hau,

Andrinua, Estibariz, Mendiguren... Athleticceko jokalaria ohiez osatua zegoen". Eta finalean jokatu zuten Galiziako Construplus taldea berriz, "Super-Depor famatuko jokalaria ohiez osatua zegoen. Fran, Manjarin, Radtchenko, Elduaien, J. Ramon... Gu lehenengo aldiz joan ginen Espainiako txapelketara. Talde gehienak, gehienetan parte hartutakoak dira. Gu, asteburu pasa joan ginen, ondo pasatzeraz, zer zen probatzeraz...".

### Portugal

Arratsaldean jakin zuten, finalean sartuz gero, Portugala joateko aukera izango zutela. "Hasieran oso urritu ikusten genuen, baina gero eta gertuago ikusten genuen Portugal. Finalera iritsita, saria bagenuen".

**B**azkaldu ondoren, errekan sartu ginen denak. Tontakeria bat ematen du baina hankentzako oso ondo etorri zitzaigun.

## Super-Depor ere mendean

Bai Santanderreko eta bai Lisboako finalean, Super-Depor taldean aritutako Fran, Manjarin... eta horiek zituzten aurkariak. "Gu hasieran, ikaratuta pixka bat. 2-0 galtzen hasi ginen gainera, paliza handia emango zigutela pentsatzen genuen, baina jenio txar pixka bat atera genuen, berdindu, eta azkenean, penaltietan irabazi genuen. Guretzat eromena izan zen. Herren bukatu genuen... baina polita izan zen oso. Askok kostatakoa eta espero ez denean lortzen dena politagoa izaten da", gogoratu dute irrifartsu.

Super-Deporreko jokalariek horiek oso harroak iruditu zitzaizkien beasaindarrei. "Elduiarekin ondo baina beste guztiarekin, prepotentzia handia ikusi genien, erraz irabaziko zutela uste zuten, gu harrিতuta gelditu ginen. Erraza zuten, guri kaso pixka bat egitea, gu horrekin bakarrik gustura. Hori dena pasatu eta gainera guk irabazi, muturreko galanta hartu zuten. Partidua bukatutakoan oso gutxi etorri ziren eskua ematera eta zorientze-



*Portugalen finala jokatu aurretik. Beheran ezkerretik laugarrena da Fran jokalariek ezaguna.*

ra. Harrিতuta gelditu ginen", zehaztu dute.

Portugalen berriz ere topo egin zuten galiziarrekin. "Portugalen bazekiten berriz ere gure aurka jokatuko zutela eta bi fitxaketa eginda joan zi-

ren. Gu, berdina joan ginen, bi gutxiago joan ginen gainera, eta burutik ere ez zitzaigun pasatu inor hartu behar genuenik. Eta berriz irabazi egin genien, errazago gainera, 8 eta 4", azpimarratu dute beasaindarrek.

Hurrengo zita, beraz, Portugalgoa zen. Zehazki, ekainaren 30ean, Lisboan, Final Four Iberico txapelketa. Berriz ere galiziarren aurka jokatu behar izan zuten finala. "Santanderren baino errazago irabazi genien", diote.

Aurtengo denboraldia ere hanka onarekin hasi dute, dagoeneko lortua baitute Espainiako txapelketarako txartela. Aurten, Madrilen jokatuko da. "Pare bat afaritan antolatuko dugu bidaia. Aurten trikitilariak eramateko asmoa ere badaukagu". Madrilen errekarik ez dute izango. "Manzanares inguruan ote dagoen begira aritu gara. Suabe-suabe joango gara Madrila, jolasera, eta lortzen badugu aurrera egitea ondo, bestela ez da ezer gertatuko". Dena den, garbi daukate, "iaz egin genuena berriz errepikatzea zaila da".

Zuma GH-koak gustura daude orain arte lortu dutenarekin. "Hasieran ez genuen pentsatzen iaz lortu genuena lortuko genuenik. Bigarren mailan hiru urte egin genituen. Bigarren urtean, jendea uzteko prest azaldu zen, baina batzuk gogor jarri ginen, lehenengo mailara iritsi arte ez genuela utziko. Eta hala lortu genuen. Orain inork ez du utzi nahi".

### Futbol-7

7 jokalariz osatutako taldeak izaten dira Futbol-7an. 25 minutuko bi zati jokatzen dira.

"Futbol-zelaiaren zabaletara jokatzen da, zelaia txikiagoa da. Arauak berdina dira, hori bai, aldaketak nahi diren adina egin daitezke, sartu eta atera nahi denean egiten da", zehaztu dute.

Futbol-7a aukera egokia iruditzen zaie, "futbola pixka bat ahaztuta geneukantzat aukera ona da berriz ere futbol munduan sartzeko. Gero eta jende gehiagok parte hartzen duen txapelketa da. Donostia aldean hasi ziren eta gaur egun Gipuzkoa osora hedatu da. Beasainen, Her-

nanin, Usurbilen, Urnieta, Lasarten, Andoainean, Donostian... jokatzen da. Politak da. Igartza futbol zelaiak aukera ematen du. Talde bakoitzak lehentasuna jartzen du non eta noiz jokatu nahi duen. Guk, igande goiza daukagu aukeratuta. Bizkaian ere beste liga bat dago, Araban, Nafarroan... eta Espainiako probintzietan". Beasain futbol taldean ibilitakoak dira jokalariek guztiak.

Txapelketaren seriotasuna aipatu dute. "Oso txapelketa serioa da. Guk fitxak daukagu, ordaindu egiten da izen-ematea ere eta nik uste dut ordainketa horrek ematen diola seriotasuna, ia 300.000 pezeta ordaindu behar dira eta. Dirua ordaindu eta ez joatea... Isun handiak daude ez joateagatik. Karnetak ere eskatu egiten dituzte partiduetan".

Pena bat badute ordea

**S**entipenak izugarriak dira, lehen baino ilusio handiagoa egiten du irabazteak.





## Umore onaren taldea

“Santandarren irabazi genuenean, gauean, gure aurka finala jokatu zuten Deporrek jokalaria batzuekin egin genuen topo, normaltxoenak zirenekin. Franek-eta berehala alde egin zuten. Haiek esan ziguten, ospatzen ikusi ziguten ilusioagatik bakarrik, guk irabaztea merezi izan genuela. Barrutik ateratzen zitzaigun gauza bat zela. Gu ondo pasatzera joan ginen eta irabazita oraindik hobeto”, adierazi dute beasaindarrek. Portugalen irabazi ondoren ere ederki pasa zuten argazkietan ikusten den bezala.

beasaindarrek: entrenatzeko astirik ez daukatela. “Lana dela, umeak direla... ezinezkoa zaigu. Entrenatu gabe ere ondo joan zaigu eta horrela igual hobe. Beste taldeetakoak harrিতuta gelditzen dira ez dugula entrenatzen esaten diegunean”.

Fisikoki zaintzen ote diren galdetu diegu. Erantzuna garbia izan da. “Gutxi. Bakoitzak bere aldetik, ahal duena egiten du. Astean edo bi astean behin korrika

pixka bat egitera joaten baldin bagara horixe, eta askotan hori ere ez”.

Taldean, gaztetasuna eta esperientzia ondo uztartzen dituzte. “38 urterekin nabaritu egiten da eta gazteak ere behar dira taldean. Zelaian kokatzen jakitea garrantzitsua da eta hori betarriak ematen du. Jokalari bakoitzak badaki taldean zein rol daukan. Batzuk futboleko asko ibilitakoak dira, bakoitzak badaki noiz

jokatu behar duen eta hori oso ondo eramaten ari gara eta nik uste dut hori dela lortzen ari garenaren arrazoiatariko bat”, aitortu dute.

### Sentipen izugarriak

Lagun giroan, jai giroan, umore onean, futbolarekin gozatuz ari dira Zuma GH-koak. “Sentipenak, izugarriak dira, lehen baino ilusio handiagoa egiten du irabazteak. Gure arteko gauza bat da. Ez dizu inork agintzen,

entrenatu ere ez dugu egiten... oso giro ona daukagu taldean, koadrila giroa da. Lehen futboleko genbiltzanean, bakoitzak izan zitzaizkeen pretentsio horiek ez daude”.

Aspaldiko ezagunak ikusteko aukera ere badute, garai bateko kontuak birgogoratu. “Federatuta genbiltzanean gure aurka ibilitako jokalaria batekin baino gehiagorekin egiten dugu topo”. ■

**Goierri**tarra  
943 16 00 56  
goierritarra@goierrikohitza.info

GOIERRIKO **hitza** info  
943 16 00 56  
goierri@goierrikohitza.info

**Goiz** arbiketak

Garbiketa  
Zerbitzu  
Integrala

Enpresen mantentzea

Tel./Faxa: 943 188 194 Mug.: 696 999 117  
Kale Nagusia, 25, 1. esk. IDIAZABAL

**Ikaskide**  
irakaskuntza eta pedagogia

ESKOLA LAGUNTZA:  
Gai eta maila guztiak

INFORMATIKA:  
Mekanografia, Word...

INGELERA:  
Haurrak, gazteak, helduak

IKASKETA TEKNIKAK, TAILERRAK

UNIBERTSITATE MAILA:  
Enpresaritza, Injeniaritza

Joan Iturralde, 5, Beasain  
943 160 120  
www.ikaskide.net

# Urbiako ermita egin zenekoa

1924ko agorrilaren 28an be-  
deinkatu zen entzute han-  
diz gure Urbiako ermita.  
Egitamuaren hasierako  
txostenak hau dio:

“Urbiako lautaran, Aiz-  
korriren oinetan, udaberri  
eta udako hiletatn hoge eta  
hamar edo berrogei pamily  
tinkatzen dira euren artalde  
ugariak larreratzeko.

Kristau pamily haueri,  
oso zaila gertatzen zaie  
igande eta jai egunetan me-  
za entzuteko legea betetzea  
eta eragozpen hau zuzen-  
tzeko, Arantzazuko praileek  
ermita bat bertan ereikitzea  
asmatu dute artzaiei ordu-  
tako ibilia kendu nahiez.

Ermita Arantzazuko  
Ama, Gipuzkoako zainda-  
riaren izenean ereikiko da.  
Asmo eder hau sortu eta ge-  
ro, igande eta jai egunetan  
meza ematea euren gain  
hartzea erabaki dute Aran-  
tzazuko praileak”.

Urbiako Egitamua Az-  
koitiako Martzelo Gilbert ar-  
kitekto jaunari zor zaio.

Lan guztien kontratista  
Enrike Uriarte jauna izan  
zen, eta 35.844 pezeta es-  
katu zituen lana burutzea-  
rren. Lan guztien kapataza  
Araozko Demetrio jauna  
izan zen.

Ama Birginaren irudia  
Zumaiako Julio Beobidek  
egin zuen eta margolariaren  
maisu den Inazio Zuloagak



*Ermita eta burrengo  
urtean zabaldu zen fonda  
izan ziren teilekin Urbian  
egindako lehen  
eraikuntzak. Teila  
jabetzaren adierazgarri  
zen. Handik aurrera  
artzainak ere txabolen  
teillatuak teilekin egiten  
hasi ziren. Lehen Pedro  
Etxezarreta izan zen eta  
Partzoneriatik debekatu  
ziotenean berak  
argudiatu zuena izan  
omen zen: Partzoneriak  
eskubidea baldin bazuen  
ondasunekin egiteko,  
egunero ban bizi behar  
zuten artzainek ere eduki  
behar zutela.  
‘Zegama, Urbia eta  
Aizkorriko artzaintza’  
liburutik.*

Andre Mari Nahigabetuaren  
margozki bat dohain eman  
zuen. (Margozki hau gaur  
Arantzazun gorde ohi da  
inork lapur ez dezan.)

Jose Urreztietia donostiar  
legegizonak kapirioak egi-  
teko egurra Burdinkurutz  
izeneko basoan eman zuen  
eta beste bederatz haritz  
Erroitegiko basoan. Legaz-  
piko Patricio Etxeberría jau-  
nak 60 pezetatoko kanpai  
bat oparizat eman zuen eta  
Segurako Ubaldo jaunak  
1.200 tella eta 1620 pezeta  
balio zutenak. Egitamu oso-

**Iñasti**  
Hertz Klinika  
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO  
602 Zbk. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK  
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN  
☎ 943 88 46 28

MUJIKA 19

**MUJIKA**  
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94

Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

Zeure etxea dekoratzeko biderik laburrena

**ibai ondo**  
barne diseinua  
dekorazioa

Garai berrietarako  
ideia berriak

Katea 5, Antzizar auzoa  
Tel.: 943 16 40 40  
BEASAIN

an behar zen egurra, Arabako Nabaja herriko Inazio Uriarte jaunak dohain eman zuen, Arriola mendiko haritzak ziren, 3.200 pezeta balio zuten, ermita egiten ari ziren lekura erakarri zituzten.

Ate eta leihoetako burriak Arrasateko 'La Unión Cerrajerak' eman zituen.

Nabas guztietarako beharrezkoa zen karea Zegamako Ezpaleo baserritik ekarri zen 25 pezetan, Luzio Arakama jaunari erosita. Zementua Grazian Alberdi jaunak Brinkolan zeukan fabrikatik ekarri zen.

Partzoneriak lurraz gain Urbiako material guztiak dohain eman zituen. Karretoa idiekin egin zen.

Oñatiko Santa Anako monjak kasulla gorri bat eman zuten eta Maria Gil de Atxa, Bilbaoko andereak berriz kasulla berde bat.

Oñatiko Udalak 1.000 pezeta eman zituen eta Oñatiko herriak 2.340 pezeta ermita berriarentzat.

Oñatiko alkate Santos Etxeberria jauna izan zen Urbiako Egitamu orokorra-ren diruzaina.

Legazpiko Udalak 500 pezeta eta herrian egin zen dirueskean 445 pezeta bildu ziren.

Zegamako Udalak 250 pezeta eman zituen eta herrian egin zen dirubatzean 721 pezeta bildu ziren. Mutitilan berriz 83,50 pezeta.

Gipuzkoako Aldundiak lan denak bukatu eta gelditzen ziren zorrak ordainduko zirela uste zen, baina ez zuen ezer eman.

Arabako Aldundiak eta Arabako Partzoneriako herriek ez zuten ezer eman. Partzoneriak "fonda" egiteko hitza eman zuen eta gainera diruz estu zebilen Urbiako gastuak ordaintzeko.

Aita Lizarralde estoa sunik franko jasan zuen zorrak nola ordaindu asmatzen.

*Xabier Azurmendi Agirreren 'Atzoko Zegama' liburutik.*



## Urbiako ermitako lehen meza

1924ko Agorraren 28an eman zen lehen meza Urbiako ermitan. Gutxi gora behera 5.000 pertsona bildu ziren bertan.

Euskal Herriko mendigoizaleen elkarte-ko lehendakari zen Anton Bandresek tren berezi bat aterarazi zuen Bilbon goizeko hiruretan. Trenez etorri ziren bilbotarrak eta goizeko hamarretan Urbina zeuden.

Eguraldia zoragarria izan zen.

Goizeko zazpitan irten ziren Arantzazutik Urbiara zenbait agintari. Mateo Mujika jauna, Iruñeko gotzaina. Partzoneriako lehendakaria eta Segurako alkate zen Aramburu jauna, Partzoneriako alkateak, Oñatiko alkatea eta Arantzazuko praileen nagusia zen Jose Antonio Urkiola.

Gotzain jaunak goizeko bederatzia eta erdietan ermita berria bedeinatu eta meza santua eman zuen.

Goizeko zortzietan Arantzazutik Urbiara prozesioan irten zen jendea, lau gizonen Julio Beobideren Ama Birjina bizkarrean zeramakiten, Segurako dantzariak eta txistulariak aurretik zihozelarik.

Ama Birjinaren inguruan mikeleteak eta beste zenbait agintari bildu ziren. Hamarretan iritxi zen Urbiara Ama Birjina eta gotzainak pontifikalez jantzirik ongi etorri eman zion.

Hamar eta erdietan ermita aurrean eman zuen meza nagusia Jose Antonio Urkiola Arantzazuko praileen priorak. Sermoia D. Mateo Mujikak egin zuen euska-

raz, aita eta aitona Urbian artzain izanak zituenez.

Meza ondoren auresku eder bat atera zuen Segurako alkateak, Aldundiko diputatuak eta Anton Bandresek.

Ondoren Urbiako "fonda" izango zen egoitzari lehen harria ipini zitzaion. Fondaren kontratista ere Uriarte jauna izango zen.

Egun berean Urbian urrutizkina bedeinatu zen.

Goizeko hamaiketan Anton Bandresek Aizkorriko gailurrean, Tolosako Teodoro Argoteri zidarrezko mendigoizale medaila ipini zion.

Eguerdian Partzoneriak bazkari on bat eman zien pertsona ofizialei. Bazkari hau Arantzazuko Hospederian gertatu zen.

Bazkal ondo aizkora jokuz eta ahari talkaz alaitu zen, gero Segurako eta Oñatiko dantzarien dantzaz eta irrintziz.

Frantses Txikiak eta Kirikok egin zuten bertso saioa.

Urbian bildu ziren agintariak Arantzazutik Urbian zehar Otzaurtera kamiñoa egitea aipatu omen zuten. Bazkari on baten ondoko kontuak.

Arratsaldeko lauretan hasi zen jendea etxeratzen.

Legazpiarrak Ubaldo Segura diputatua buru zutela Kataberatik joan ziren etxera.

Horrela bukatu zen egun eder hura.

*Informazioa: Oñatiko Jose Mari Leturiaren Aizkorriko paperetatik.*



# Sugan taldearen erritmoan

**VOLVO**



**ANZIZAR, S. A.**



**Autoen salmenta  
Mekanika eta  
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a **BEASAIN**

[www.anzizar.com](http://www.anzizar.com) ☎ 943 88 17 00 Faxes.: 943 88 48

San Inazio, 14 BEASAIN  
☎ 943 889 390

Garagartza pl., 1 ORDIZIA  
☎ 943 805 327

San Franzisko, 8 TOLOSA  
☎ 943 650 239

*Lirain*

*Lurrindegia eta opari gaiak*



Jose Agustin Jauregi

Tel. eta Faxes: 943 886 558  
Poltsikoko tel.: 616 698 288

Zubi-Erreka Industrialdea, 42  
LAZKAO

[toldosagustin.com](http://toldosagustin.com)  
[auxkin@toldosagustin.euskalnet.net](mailto:auxkin@toldosagustin.euskalnet.net)



*Jon Eskisabel, Garazi Zabaleta, Elixabel Bufanda, Maria Amolategi eta Victor Sanchez*

20 eta 26 urte bitarteko bost beasaindar gaztek osatutako musika taldea da Sugan. Garazi Zabaleta pianoarekin aritzen da; Victor Sanchez bateriarekin eta programazioarekin; eta Jon Eskisabel baxuarekin eta gitarrarekin. Kantariak, Maria Amolategi eta Elixabel Bufanda dira. Herriko musika eskolan sortu zen taldea, 2004. urtean, Ataunen jokatzekoa zen Gipuzkoako Kantu txapelketan parte hartzeko. "Beasaingo festa batzuetan izan zen", gogoratu dute. Ataunen irabazi eta Euskal Herriko txapelketarako txartela lortu zuten; han bigarren postua egin zuten. "Guretzat ezustea izan zen. Euskal Herriko txapelketa Donostian, Kurasaen izan zen".

Jendaurreko lehen agerraldi haren ondotik, abestiak erregistratzea pentsatu zuten Suganekoek. "Editorial batera joan ginen. Udan grabatu genuen maketa aurkeztu genuen. Maketa horren bitartez, Elkarrek ezaugu gintuen eta hortik etorri zen diskoa grabatzeko proposamena. Urtebetera grabatu genuen diskoa".

Hamahiru kantuko diskoa osatu zuten. Kantu txapelketan aurkeztu zuten 'Zarena zarelako' kantua

ere sartu zuten. "Ordurako erreperitorio bat bageneukan baina kantuak konposatzen eta prestatzen jarraitu genuen. Kantu sorta horretatik egin genuen aukeraketa. Maketatik bi kantu bakarrik sartu genituen".

Maketatik diskora, "alde pixka bat egon zen, Jon Eskisabel gitarrajolea sartu baitzen taldean. Aurretik bi ahots, eta bi instrumentu ziren, pianoa eta bateria. Gitarra sartzen den momentu-

tik antzeman egiten da".

Juan Carlos Perezekin grabatu zuten diskoa. "Hiru asteko grabazioa izan zen. Arratsaldeko 6etatik goizaldeko 2etara grabatzen genuen. Orain diskoa entzunda, hainbat aldaketa egingo genituzke", adierazi dute Suganekoek.

### **Talde berezia**

Talde "berezi" bezala deskribatu izan da Sugan. Zein berezitasun dituen galdetu

diegu taldekideei. "Pianoa oinarri duen taldea da; nesken ahotsak dituen taldea; pop musika jotzen dugu eta Euskal Herri mailan ez dago asko", azpimarratu dute.

Musika tresnekin lotuta, beste berezitasun bat ere badu Suganek: "pentsatu izan dugu baxua sartzea. Talde bakarrenetarikoa izango da baxurik ez duena, eta hori antzematen da. Jonek, batzutan gitarra eta beste batzuetan baxua jotzen du. Baxuak, batez ere kontzertuetan, beste sakontasun bat emango lioke taldeari. Momentuz moldatzen gara. Arazoa, zuzenekoan izango genuke. Diskoan grabatu liteke baxua, baina zuzenekoan ez badago...".

Pop kutsuko taldea da Sugan, baina baditu tarteka rockeko zertzelada batzuk. "Rock ikutu gehixeago daukaten kantuak egiten ari gara azkenaldian, batez ere, kontzertuei begira, aukera gehiago ematen baitu", diote. Jon Eskisabel baxu joleak gehiago zehaztu dute: "Azkeneko abestiak pop-rockera gehiago jotzen dute, sakontasun gehiagorekin, melodikoagoak izan dira orain arte...".

Taldeko piano joleak, Garazik, egiten ditu kantuak. Bai, musika, eta bai

## **Ametsak amets**

Ametsa egitea dohainik izaten da eta ametsetan jarri ditugu Suganekoak. "Ametsaren parte bat bete da, diskoa grabatzea bera. Hemendik aurrera datorrena, balio erantsi bat izango da", dio Garazik. Mariak, Donostiako festetan jotzearekin egiten du amets; Elixabet, ahalik eta kontzertu gehien jotzea, eta jendeari gero eta gehiago gustatzearekin konforme da. Taldeko mutilek, beste amets batzuk dituzte. Jonek, "Europar zehar, furgoneta batean, bira txiki bat egitea". Victorrek azkenik, Jonen ildo bereko ametsa du baina lolekua aldatuta, "Europar bira, bost izarretako hoteletan lo eginez", dio parre algaraz.

**“ Ametsaren parte bat bete da, diskoa grabatzea bera. Hemendik aurrera datorrena, balio erantsi bat izango da”**

hitzak. “Orain arte, kantu-  
ren bat prestatuta daukada-  
nean, entsaiora eraman, eta  
moldatzen joaten gara.  
Nahiko gorpuztuta erama-  
ten ditut kantuak”, adierazi  
du Garazik.

Normalean, lehenengo  
musika sortzen du, eta gero  
hitzak idazten ditu. “Batzu-  
tan lehenengo hitzak idaz-  
ten ditut eta gero jartzen  
diot musika; eta alderantziz  
ere bai”.

Dena den, Maria Amola-  
tegiren kantu bat ere sartuta  
dago taldearen maketan.

Euskaraz eta gaztelerez  
dituzte kantuak hitzak. “Bi  
hizkuntzatan bizi gara eta  
konposatzerakoan, gehiegi  
pentsatu gabe idazten du  
Garazik, hizkuntza batean  
zein bestean. Ateratzen  
zaion bezala. Abesti gehie-  
nak euskaraz dira”, diote  
beasaindarrek.

### **Kontzertuak, nahi baino gutxiago**

Talde berezia ere bada bes-  
te arrazoi bategatik. “Diskoa  
atera genuenean, ez ginen  
kontzertuz kontzertu ibil-  
tzen zen talde bat. Tarteka,  
Goierriin, Musika Eskolaren  
bidez jotzen genuen... bai-  
na besterik ez. Gure sorre-  
ra, Musika Eskolan izan  
zen”, aitortu dute.

Kontzertuen haritik, aho  
batez esan digute, kontzer-  
tuak nahi baino gutxiago  
dituztela. “Diskoa lasai sa-  
marra denez, festetarako-  
eta nahiago izaten da roc-  
keroagoa, mugituagoa. Az-  
kenaldian antzokietan jotze-  
ko ari zaizkigu deitzen.  
Kantu berriak sortu ahala,  
kontzertuetan jo egiten di-  
tugu, rockeroagoak dira”,  
diote.

Kontzertuak, horixe dira  
nahi dituztenak. “Kontzer-  
tuek motibatu egiten gaituz-  
te, ezagutzera eman. Kon-  
tzertuen bidez aukera  
gehiago sortzen dira. Musi-  
kari edo talde bezala, hori  
da gure egitekoa, musikare-  
kin gozatzea”, azpimarratu  
dute.



*Beasaingo Musika Eskolaren lokalean entsaiatzen du Suganek.*

## **“Herrian jotzea polita izan zen”**

Nahi baino kontzertu gutxiago jotzen ditu Suga-  
n taldeak. Azaroan, Udazken Kulturalaren  
barruan, Beasaingo Usurbe Antzokian jotzeko  
aukera izan zuten. “Polita izan zen herrian  
jotzea. Gainera, lehenengo aldia izan zen areto  
batean jotzen genuela. Jendea eserita, be-  
hean, gu eszetoki gainean, jendea guri begira-  
begira... Polita izan zen”.

Orain arte jotako kontzertuetan hiru dituzte  
gogoan beasaindarrek. Aipatu berria du-  
gun Beasaingo, “Gasteizko jaietan jo genuena,  
jende pilo bat, gu ere ondo sentitu gi-  
nen... eta Kilometroak-ekoa”, aitortu dute.

Dena den, entsaiotera  
elkartzea nahikoa zaila dute  
Suganek, ikasten eta lane-  
an, herritik kanpora aritzen  
baitira. “Entsaioak, astebu-  
ruean egiten ditugu. Kon-  
tzertu baten atarian gehixe-  
ago saiatzen gara”.

Euskal Telebistako ‘Pilo-  
tari’ telesaileko abestia ere  
egin zuen Suga-  
n taldeak eta  
telebistak taldea ezagutaraz-  
teko lagundu izan diela ai-  
tortu dute. “Diskoaren sal-  
diote.

mentan nabari izan da  
gehien”.

Musikaz gain, taldekide-  
ak beraiek ere azaldu izan  
dira telebistako irudietan.  
“Grabazioa polita izan zen  
eta ikustea ere bai. Eta aste-  
ro melodiak entzutea, iru-  
dia... inpaktoa egiten du.  
Pozgarria da. Jendeak letrak  
dakizkienean inpaktatu egi-  
ten du. Kontzertuetan behin  
baino gehiagotan gertatu  
zaigu ‘Pilotari’ eskatzea.

Diskoan, abesti berdina  
daukagu, baina beste hitz  
batzuekin. Lagundu digu  
bai igandero entzutea”.

### **Bigarren diskoa helburu**

Taldearen arrakasta aprobe-  
txatuz, beste diskoren bat  
grabatzeko asmorik ba ote  
duten galdetu diegu. “As-  
moa hori da. Abesti berri  
asko ditugu. Kontzertuetan,  
abestien erdiak zaharrak  
izaten dira eta gainerakoak  
berriak. Horrek eskatzen di-  
gu bigarren disko bat”,  
erantzun dute.

Urte hauetako guztietako  
esperientziaren ondorioz  
gainera, “musikalki alde  
handia dago, eta eszenatoki  
gainean gure jarrera bera  
ere bai. Estilo ezberdinetako  
abestiak izango dira”, ai-  
tortu dute.■

**Euskal Telebistako ‘Pilotari’ telesaileko  
abestia ere egin zuen Suga-  
n taldeak eta  
telebistak taldea ezagutarazteko lagundu  
izan diela aitortu dute.**

## LANA

### eskaerak

**Hitzaro euskara elkarteak** aisialdiko proiektuak kudeatzeko pertsona behar du. Lan jardun erdia. Kurrikulumak urtarrikal 26 baina lehen hitzaro@euskalnet.net edo Hitzarora (Zumalakarregi, I Ordizia) bidali.

**Araman** emakume bat behar da orduka etxeko lanak egiteko. 650728717.

**Ataungo** Urbitarte sagardotegian lan egiteko pertsona bat behar da. 943180119.

**Legazpiko** Arrano tabernan zerbitzaria behar da. 669088946.

**Zaldibian**, denda bat eramateko pertsona bat behar da. 8:00etatik 14:00etara deitu. 943885500.

**Tabernarako** zerbitzaria behar da. Baldintza interesgarriak. 688632201.

**Ordiziako** Herrikorako zerbitzaria behar da. 943887598.

### eskaintzak

**Emakumea** eskaintzen da ostalaritzan, garbiketara... lan egiteko. Esperientziaduna. 618355445.

**Neska** gaztea eskaintzen da orduka edo egun osoz, pertsonak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. 675555811 - 943085011.

**Neska**, erreferentzia onekin, lan bila dabil. Etxean bertan bizita ere bai. Orduka. 690152202.

## BESTELAKOAK

### salgai

**Logela** salgai. Txuria, osoa. Egoera onean eta berria. Kapritxosoa. 665717162.

**Akazi** piketeak salgai. 943180230 - 699761578.

**Sutarako** pago egur lehorra salgai. Etxera entregatzen da. 615755762.

### kontsultak

**Tarot** kontsultak. 943766214.

## IBILGAILUAK

**Chrysler Voyager** S.E. salgai. M-OU. 652772369.

## GARAJEAK

### salgai

**Lazkao.** San Jose auzoan, garaje itxia salgai. LAZKAO INMOBILIARIA.

## PABILIOIAK

### errentan eman

**Lazkao.** Pabilioia alokairuan, lbabe industriagunean. 336 m<sup>2</sup> + 168 m<sup>2</sup>. LAZKAO INMOBILIARIA.

**Goierritarrako iragarki laburrak: hitz bakoitzeko 0,65 euro.**

**Iragarkia bi aldiz argitaratuko da Goierritarran, behin Goierriko Hitzan eta 7 egunez egongo da www.goierrikohitza.info webgunean.**

943 16 00 56

goierritarra@goierrikohitza.info / gh@goierrikohitza.info

## ETXEBIZITZAK

### errentan hartu

**Bikotea** alokatzeko pisu bila dabil Beasainen. 687795557.

**Euskaldun** gazte langilea, pisu bila dabil Goierriin, alokairuan. Txakurrik eta umerik gabe. 687785985 - 943028575.

### salgai

**Ataun.** Eraikuntza berria: 2 logelako pisua, garaiearekin eta trastelekuarekin. 210.400 euro + Beza. LAZKAO INMOBILIARIA.

**Beasain.** Igartzako etxebizitza gunean, 112 m<sup>2</sup>ko etxebizitza salgai: 4 logela, 2 bainu eta 14 m<sup>2</sup>ko terraza. Bi autorentzako garajea. 635746967.

**Beasain.** 4 logelako etxebizitzak salgai, oztopo arkitektonikorik gabe. Erdigunean. INMO F3 BEASAIN. 943164936 - 629417171.

**Beasain.** Duplez ederra salgai. Bista paregabeak. Eraikuntza berria. INMO F3 BEASAIN. 943164936 - 629417171.

**Beasain.** 80 m<sup>2</sup>ko etxebizitza salgai. Igogailuarekin. Prezio interesgarria. INMO F3 BEASAIN. 943164936 - 629417171.

**Beasain.** Eraikuntza berriko 2 logelako pisua salgai, erdigunean. Garaiearekin. INMO F3 BEASAIN. 943164936 - 629417171.

**Beasain.** Hirigunean, eraberritutako 2 logelako atikoa salgai. LAZKAO INMOBILIARIA.

**Idiazabal.** Eraikuntza berria: 3 logelako etxebizitza. Sukaldea hornitua. 283.000 euro + beza. LAZKAO INMOBILIARIA.

**Lazkao** etxebizitza salgai, 3 logela, 80m<sup>2</sup>, eguzkitsua eta bista onak. Aukera ona. 660024835

**Lazkao.** Hirigoien kalean, 2 logelako etxebizitza. Igogailua eta trastelekuarekin. 234.000 euro. LAZKAO INMOBILIARIA.

**Lazkao.** Hirigoien kalean, 2 logelako etxebizitza salgai. Igogailuarekin. LAZKAO INMOBILIARIA.

**Lazkao.** San Jose auzoan, 60 eta 75 m<sup>2</sup>ko etxebizitzak. LAZKAO INMOBILIARIA.

**Lazkao.** Eraikuntza berriak: 1, 2, 3 eta 4 logelakoak. Orobionen eta San Prudentzio auzoan. LAZKAO INMOBILIARIA.

**Ordizia.** Aita Urdaneta kalean: 3 logela. Guztiz berritua. Oso argitsua. LAZKAO INMOBILIARIA.

## ANIMALIAK

### salgai

**Ardiak** arkumeeekin, salgai. 666941739.



Promoziok, Eraikuntzak, Erreformak... 943 65 34 93 - 649 46 32 89 ABALTZISKETA

Arraiak parrilan

© 943 65 21 76

ABALTZISKETA

ZALBIDE

TOLARE SAGARDOTEGIA



Legorreta

## Oinarrizko informatika eta sukaldaritza ikastaroak

### Oinarrizko informatika

Legorretako Udaleko Kultur Batzordeak Oinarrizko Informatika Ikastaroa antolatu du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila eta Cebanc-Cdearen laguntzarekin. Ikastaroa ostegunetan izango da arratsaldeko 5,30etatik 7,30etara Ugare Herri Ikastetxe-ko informatika gelan. Ikastaroaren iraupen osoa 20 ordutakoa izango da eta otsailaren 14an hasiko da eta maiatzaren 8an amaitu. Ikastaroan zehar ordenagailuek eguneroko bizitzan duten erabilera praktikoa eta dokumentuen tramitazioa ikusiko da. Ikastaroa amaitu ondoren idatzizko dokumentazioa banatuko da.

### Sukaldaritza

Legorretako Udaleko Kultur Batzordeak Sukaldaritza Ikastaroa antolatu du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila eta Cebanc-Cdearen laguntzarekin. Ikastaroa asteazkenetan izango da arratsaldeko 6,30etatik 9etara Bilkoin Elkartean. Ikastaroaren iraupen osoa 30 ordutakoa izango da eta otsailaren 13an hasiko da eta maiatzaren 14an amaitu. Ikastaroan zehar elkarte gastronomikotarako jakiak prestatzen ikasiko da eta lehenengo pausoak emango ditugu euskal sukaldaritza sortzaile berrian. Errezeta- liburu bat egingo da teknologia berriak erabiliz. Ikastaroa amaitu ondoren idatzizko dokumentazioa banatuko da.

### Izena emateko

Ikastaroak 25 urte baino gehiagoko pertsoneri zuzenduak izango dira, plaza mugatuak izango dituzte (18 ikasle informatikakoan eta 20 ikasle sukaldaritzakoan) eta izena emandako orden zorrotzean beteko dira. Izenemateen prezioak: 20 euro informatikako ikastaroak eta 30 euro sukaldaritzakoak. Dagozkien orriak Udal Bulegoetan betez gauzatu dira eta otsailaren 7an amaituko dira epeak.



Ormaiztegi

## Sahararen aldeko kros herrikoa, otsailaren 24an

II. Salem Hach Embarek Memoriala jokatu da Ormaiztegin, otsailaren 24an, Sahara-Cross elkarteak antolatuta. Goizeko 11etan izango da lasterketa eta 10 kilometroko ibilbidea prestatu dute Ormaiztegin barrena. Dena den, eguerdiko 12,15ean, lasterketa testimoniala ere izango da, kilometroko zirkuituan.

Kirola eta alde ekonomikoa bateratzea da lasterketa herrikoien helburua eta lasterketan biltzen den dirua, Saharako kanpamenduetara bidaltzeko izango da, "kanpamenduetan dituzten bizi-baldintzak guretzako jasan ezinak lirateke, eta guk bidali diezaiekegun laguntza ziur asko estimatuko dutela. Gure nahia, egun bakar batetik bada ere, jendea saharar herriaz gogoratu araztea da helburua", diote antolatzaileek.

Lasterketan parte hartu ahal izateko, [www.sahara-cross.com](http://www.sahara-cross.com) web gunean egin daiteke izen ematea. Izena aurrez emanez gero, 8 euro ordaindu beharko dira (Euskadiko Kutxako kontu korrontean: 3035 0006 81 0060017279) eta lasterketa egunean, 10. Haurrei, borondatea eskatuko diete antolatzaileek.

Kamisetak banatuko dira parte hartzaileen artean, eta produktu ezberdinen zozketa ere egingo da.

## Harpidetza txartela

Urteko kuotak: Egin  aukeratutako kaxan

**GOIERRITARRA** 26 euro

**GOBERNO hitza** 65 euro

**GOIERRITARRA** + **GOIERRIKO hitza** 70 euro

Izen-abizenak:.....

Helbidea:..... Herria:.....

Telefono zenbakiak:..... NAN:.....

Kontu zenbakia(20 digitu):.....

Bidali txartela helbide honetara:  
Goierritarra  
Urbalde plaza 7 behea  
Beasain

Harpidedunen arreta zenbakia:  
902 82 02 01



Beasain

## Matxinbenta auzoko jaiak

Otsailaren 4an goiezko 8etan hasita, Santa Eskean aritu ziren, Laja, Izer eta Loidisaletxerekin. Iluntzeko 7etan, bota zuten festei hasiera emateko etxafuegoa. Ansozregi eta Larrañagarekin erromeria izan zuten gau partean.

Dena den, festa nagusiak, asteburuan ospatuko dituzte. Jarraian dituzue ekitaldiak:

### Otsailak 8, ostirala:

**21:30etan**, mus txapelketako izen-ematea. 20 euro bikoteko. Jokoan 22:00etan hasiko dira.

### Otsailak 9, larunbata:

**21:00etan**: Bertso afaria Iker Zubeldia eta Iban Ur-dangarirekin. Soinu-jotzaileak: Larreategi anai-arrebak. Afaritarako txartelak aurrez hartu beharko dira Beko tabernan, telefono zenbakia: 943886315.

### Otsailak 10, igandea:

**Goizean**, Txistulariekin goiz eresia.

**11:00etan**, meza.

**Ondoren**, 11:30ak aldera, haur jolasak.

**12:00etan**, pilota partidak, Azpeitiko Ilunpe Elkarteko pilotariekin.

**Goiz osoan**, artisau azoka eta Pagorriagako oreinak.

**17:00etan**, herri kirolak. Aizkoran, Joseba Otaegi eta Jon Redondo; harri jasotzaileak; Aimar Irigoien eta Goenatxo. Herri kirolak bukatuta Matxinbentako produktuekin osatutako otarra zozkatuko da.

**Egun guztian**, Izer eta Alabier trikitilariak.



NEURE BURUA NIK NEUK  
GIDATZEKO PREST!

WWW.MONDRAGON.EDU/PREST

PREST

m  
MONDRAGON  
UNIBERTSITATEA



**Ormaiztegiako neskek 1940. urte inguruan**

Ander Iurritak utzi digun 1940 inguruko argazki honetan Ormaiztegiako neska koadrila bat ageri da.

**Goiko ilaran ezkerretik eskuinera:** Maria Iurrita (Mendizabal erdikoa), Maria Albisu (Ugarte), Maria Luisa Lezama eta Maritxu Esnaola.

**Behoko ilaran:** Felixa Peñagarikano, Bibiana Iurrita (Sosoagazabal), Pilar Goia eta Maria Mendizabal.

**ONE MENDIZABAL**  
**ILEAPAINDEGIA**

Emakumezkoen nahiz  
gizonezkoen ileapaindegia  
Depilazio laser medikua  
Zutikako solariuma



943 18 04 92  
Helbarrena, 24  
ATAUN

Astelehen goizetan zabalik



**Oihalak**  
**Haurdunaldiko arropa**

Oriamendi 27      BEASAIN

**ARRIETA**

**JATE TXEA**

Ezkontzak, jaunartzeak,  
bataioak...  
era guztietako  
ospakizunak

☎ 943 88 00 02  
**OLABERRIA**

**BARANDIARAN**  
**Zeramikak**

ERREFORMAK   DISEINUAK   PROIEKTUAK   BAINUAK   HIDROMASAJA

SEMPERE KALEA, 7, 1. LOKALA BEASAIN  
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657  
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com

# ZAHARRA • BERRI

IGELTSERITZA ETA ERAIKYNTZA



Eraikuntzak  
Gremioen koordinaketa  
Erreforma orokorrak  
Teilatutak

A. Almeida  
943 180 372  
651 700 439  
aiakoerrota@terra.es  
ATAUN



# Orain Olaberrian

Toyota kontzesionario berria!

# EuskoAuto

Karobi industrialdea z/g  
Olaberria  
Tel.: 943 80 59 26



**TOYOTA**

[www.euskoauto.toyota.es](http://www.euskoauto.toyota.es)